ttipi ttapa

377

2004ko uztailaren 1a • XXIV. urtea



## Udaleku irekiak Bortzirietan 03

Bigarren urtez udaleku irekiak antolatu ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, *«euskara hutsez garatzen den aisialdi eskaintza»* eginez.



## Narbarteko Iriarte ahizpa palistak 24

Nafarroako paleta goma txapelketan txapeldun eta azpitxapeldun suertatu dira Esther eta Maite Iriarte Narbarteko ahizpak frontoian nahiz trinketean.



04 Mixel Urbistondo

# Berrogei urtez harriaren arima azaleratzen

MUEBLES AMETS



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak

larunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera BERAtik da**
*Sastrin karrika,*
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE WEB ORRIA
**www.mueblesamets.com**



# s@re

Leitzako errepidea 29 • **DONEZTEBE**
**Tel. 615 56 14 58**

## ciber-gela

- Internet
- Jokuak (sarean ere bai)

Pertsona batek bestearen aurka jokatzeko aukera

- Word, Excel, Acces eta PowerPoint-ekin edozein lana egiteko aukera (eskolako lanak...)

## Informatika Akademia

- Windows XP
- Word
- Acces
- PowerPoint
- Internet
- Imagin digitala
- Mekanografia
- Norbaitek bertze kurtso batzuetan interesatua badago, deitu dezala.

## DATUAK...

- Bigarren urtez antolatu ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakan.

- Beran ikastetxeek euren udalekuak antolatzen dituzte; Arantzan eta Igantzin aitzinetik ez zen orrelako esperientziarik eta Etxalar eta Lesakan lehendik lanean ari ziren Ipurtargi eta Txalaparta taldeekin koordinatu dira.

- Amaia Agirre Ipurtargi taldeko kidea da eta Alaitz Zabaleta euskara teknikaria.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Amaia AGIRRE-Alaitz ZABALETA** *Udalekuak Bortzirietan*

# «Euskara hutsez garatzen den aisialdi eskaintza egiten dugu»

Aitor AROTZENA

**Joan den urtean esperientzia ona izan zela ikusiz aurten berriz ere udaleku irekiak prestatu dituzue...**
Aurretik egiten ziren udalekuak Lesaka eta Etxalarren. Bertako aisialdi taldeek egiten zuten bakoitzak bere aldetik eta mankomunitatetik horren segida ziurtatu behar zela pentsatu zen eta horretarako udalekuak koordinatu behar zirela uste genuen. Arantzan eta Igantzin, ez zen deus egiten eta zerbait izanen zela ziurtatu genuen. Udaleku irekiekin udan haurrek euskaraz aisialdia izateko eta euskaraz bizitzeko aukera ziurtatzen dugu eta herriei bizitasun bat ematen diogu. Haur guziek dute aisialdia euskaraz bizitzeko aukera, baina bereziki guraso erdaldunak dituzten eta horren barrenean etorkinak diren, haur horiei ordu batzuk bederen euskaraz aritzeko modua eskaintzen diegu. Adibidez, joan den urtean, Lesakan, etorkinen hiru seme-alaba izan genituen eta aurten gehiago animatzea espero dugu. Gainera, ordaintzeko arazoak izanez gero laguntza eskatzen ahal da Gizarte Zerbitzuan.

**«Eskola bukatuta nahiko aspertuak gelditzen dira haurrak eta gogoz hartzen dituzte horrelako ekitaldiak eta gustora etortzen dira udalekuetara»**

**Zer adineko haurrak hartzen dituzue udalekuetan?**
Hiru eta hamabi urte artean nahi duten ume guziei irekiak daude. Ekintza ezberdinak egiten ditugu, eguraldiaren arabera. Eguraldi onarekin piszinara joanen gara, mendira, baserriren bat ezagutzera, errekak garbitzeko ekintzak... Eguraldi txarra egiten baldin badu eskulanak, jokuak leku itxietan... Eskola bukatuta nahiko aspertuak gelditzen dira haurrak eta gogoz hartzen dituzte horrelako ekitaldiak eta gustora etortzen dira.

**Zer ordutegi izanen dute haurrek udalekuetan?**
Etxalar eta Lesakan goizez izanen dira saioak, baina Arantzan eta Igantzin guraso elkarteekin solastu eta haurrek goizez igerilekuetan ikastaroak dituztenez arratsaldez erabaki zen, bi egunetan, astearte eta ortzegunetan. Lesaka eta Etxalarren astelehenetik ortziralera goizero izanen dira. Etxalarren uztailaren 5etik 30era eginen da eta Lesaka, Arantza eta Igantzin uztailaren 15etik abuztuaren 13ra.

**Ikastetxeetan banatu zenuten izen emateko paperak, baina oraindik ere bada apuntatzeko aukerarik?**
Ikastetxeetan haur guzieri eskuorri bana banatu zaie, informazioa eta izen emateko orriarekin. Orri batzuk bildu genituen eta orain, ikasturtea bukatu denez, izena eman nahi duenak Euskara Mankomunitatera deitzen ahal du, 948 634125 telefonora. Lesakan eta Etxalarren egunero joanen direnak 40 euro ordainduko dute eta astean bitan joanen denak, zehazki Arantzan eta Igantzin, edo bertzela Lesakan bi astez bakarrik joan nahi duenak, 20 euro. Haur guziei aseguru zibila eginen zaie.

**Zer erranen zeniokete gurasoei beraien haurrak udalekuetan apuntatzeko?**
Lagunartean ongi pasatu bidenabarkoan gauza berriak ikasten dituztela.



Argazkiak: Joseba OLAGARAI

**Mixel Urbistondo, Sarako hilerrian Mixel Iriart erretoreak eskatu eta berak landutako zutabe bereziarekin.**

## MIXEL URBISTONDO «KAIKU»

# Harriaren arima azaleratzen du duela 40 urtetik Sarako harginak

**Uztailaren 29an berrogoi urte beteko ditu Kaikueneako Mixel Urbistondo saratarrak harria lantzen. Hamalau urterekin, eskola utzi eta lehendabiziko aldiz joan zen aitarekin Larun mendian zuten harrobirat. Orain, semea aritzen da berekin harria lantzen. Beraz, belaunaldi belaunaldi pasatzen ari den ofizioa da. Mixelek aipatu digunez, harriarekin egiten ahal den edozer gauza egiten du: Etxeen izenak aunitz bai, baina aunitz gauza, hilerrietako harriak, tximinietako kordelak, kantoin harriak, askak, lore ontziak... «Jendeak zer galdegiten duen, huraxe egin.». Berrogei urteko lanak ematen duen esperientziarekin solastu digu Mixelek.**

Joseba OLAGARAI

Etxegintzan ere zerbait aritzen baldin badira ere, hargitza da Urbistondotarren ogibide printzipala. Duela berrogei urte hasi zen lan honetan Mixel, baina ordutik honat lan egiteko moldea ederki aldatu da. *«Larrungo mendian genuen harrobia eta han harri zabala ateratzen genuen. Atera, laukitu, etab. Ez genuen oraingo lan hau, harria atera, menditik jautsi, hasieran idi eta behiekin ibiltzen ginen eta gero traktorearekin, lasterrago eta hobea zen. Behiekin gaten ginenean, goizean goizik igual eguraldi ederra, baina arratsean igual euria eta zaparrada, mendian galerna sartzen zelarik ganaduarekin itzaintza oso zaila da. Zimiztekin izitzen da eta mendian zelarik ez da nahi orduko sartzen beheiti. Geroago, 20 urterekin hasi nintzen oraingo lan honetan».* Zernahi lan egiten baldin badute ere, Mixel Urbistondok Sarako hilerrirako lan aunitz egiten ditu: *«Kanposainduan, beharbada, urtean hiru hilabete oso-oso pasatzen ditugu, harrietan izenak ematen… Aunitzek nahi izaten dute harriaren gibelean zenduaren izena eta urteak ematea eta hartan asko egiten dugu. Kanposainduko gehienak nik eginak dira».*

## Mixel URBISTONDO *Hargina*



**Nondik ekartzen duzu zure lanerako harria?**
Harria lehen bagenuen hauta, lehen Larrundik ekartzen genuen eta han bada harria ainitz denentzat. Orain Sarako partean, ez da haizu gehiago harria hartzea, debekatua dute. Orain Azkaingo harrobiko harria hartzen dugu, harri sanoa da, azkarra. Hiru klase ibiltzen dugu, grixa, horia eta gorria, denak ezterarriak. Etxera ekarri, landu... Eguraldi ederra delarik kanpoan egiten dut, nahiago dut, hautsa egiten baita eta hauts hori barnean txarra da.
Harria lehenbiziko marrazkitzen duzu arkatza batekin, hitz guziak sartu behar dituzu, beraz hitz gehiago baldin badira ttikixeagoan eman eta horrela! Gero zizelarekin hasten naiz, haizezko mailuarekin bazterrak egin, baina barrena eskuz hustutzen ditut. Lan hau egiteko harriaren azala eta barreneko aldea kolore diferenteak izatea komeni da. Hustutzen duzularik barrena txuria baldin badu hitzak hobeki ateratzen dira. Badira harriak dena kolore berekoa dutenak, bai azala eta bai barnea, baina lan honetarako komeni da bertze kolore batekoa izatea.
**Etxearen izena harriz jartzeko ohitura haundia bada Iparraldean?**
Zenbaitek etxeko lorioko zurean jartzen dute, baina gehienek harriz ezartzen dute. Gero, bada ohitura hemen jende aunitz etxearen izenarengatik deitzen dena. Nere etxeak Kaikuenea du izena eta niri ez didate sekulan Mixel Urbistondo erraten, Mixel Kaiku. Lehengo baserrietan hori normala da, orai etxe berriekin, ez horrenbertze.
**Zer da jendeak gehien eskatzen duena?**
Kanposainduko lanak, etxe izenak, orai Angelun harrizko pareta egiten ari naiz piszina baten inguruan...

> *“Etxearen izenarengatik ezagutzen da jendea eta guk harriz ezartzen dugu»*

Lan horien artean, bereziak dira Mixel Iriart erretorearen eskariz eta Aita Etxandi Belokeko fraile baten planoaren arabera landutako zutabeak: *«Zango baten egiten bortzehun bat ordu eman nituen. Laukia zen, lehenik behar nuen borobildu eta gero hitzak eskultatu. Hor jartzen du: "Suge gaixtoa sutan izan zen garraitua, oi kurutzea zutan dugu salbamendua". Dena xuxen egin behar zen, kolpe txar batekin hitzak bat bertzearen gainean etorriko ziren. Lana izugarri delikatua zen».*

### «Presaka ez da behin ere gauza onik egiten»

Mixel Urbistondori ez zaio lan zaila denik inuditzen, baina pazientzia omen dago lan onaren sekretua: *«Pazientzia behar da eta denbora ainitz joaten da. Goizean hasi eta aspertzen garen artean aritzen gara. Baditut harriak presaka egiten hasi eta xehetuak. Presaka ez da behin ere gauza onik egiten. Lanari behar zaio utzi bere denbora. Bere osotasunean behar du gizona lanera eman. Semearekin aritzen naiz lanean. Nik marrazkitzen nion, baina orain berak egiten du hori ere. Bakarra gauza murritza da, bi lagunetan beti hobe da, beraz, aita-semeak aritzen gara. Gehienetan ez dira pasatzen diren oren guziak ordaintzen».*

## XVIII. MENDEKO ESKU-ERROTA

Mixel Urbistondo harria lantzen aritzen baldin bada ere, bere etxean bada bere semeak edo berak egin ez duen harri lanik ere. Argazkian ageri den XVIII. mendeko esku-errota, ez da Mixelek egina noski, baina istorio polit askia kontatu digu bere gain. *«Garai hartan inpuestoak ordaintzen zuten laborariek errotarat eramaten zen bihiaren arabera eta gertatzen zitzaien bihi guzia errotan utzi behar eta etxerako ez aski. Esku-errota honekin etxerako talo batzuk egiten zituzten, baina oso debekatua zegoen. Honekin etxean atxemanez gero galeretarat igortzen zuten hamar urterentzat berdin, barkuan arraunean tiratzeko, Ameriketarat edo noranahi joateko. Orain esku-errota museoko gauza da, errotaharria bezal-bezala landua da, bihia lehertzeko gisan eta irina egiteko. Horren istorioa hori da, osoki debekatua zen Frantzian Luis XV. denboran partikularzki, 1750. urte inguruan».*



**XVIII. mendeko esku-errota etxean izatea erabat debekatua zegoen.**

### Hilerriko iduzki-harriak

Bertzelako konturik ere aipatu digu Mixelek. Gazteleraz estelak, euskaraz hilarriak, baina bertze izen batekin ere deitzen zaio hilerriko harri borobil hauei. *«Iduzki-harria deitzen zioten. Niri erran nautenez, gu euskaldunak, giristinotu aitzin paganoak omen ginen eta paganoen jainkoa eguzkia omen zen, dirua ere bai segur, baino eguzkia ere bai. Gero, katolikoak gure konbertitzerat etorri zirenean, molde hauek hautsi egin zituzten. Sarako hilerriko pareta zaharrean badira halakoak hautsiak eta bertze pareta egiteko emanak, paretean sartuak. Gero, pixkanaka-pixkanaka, 1900. urte inguruan berriz hasi ziren eta elizak onartu zuen berriz molde zaharrean egitea, hemengo gauza baita eta orain egiten da, baina 1930etik goiti, lehenagokoak denak xehatu eta desegin ziren, desagertu ziren eta orain diren zaharrenak, banaka batzuk, 1930etik goitikoak dira. Orain gehienek horrelakoa egiten dute».*

**ttipi-ttapa**

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Comission Paritaire:** En cours
**Tirada (Tirage):** 6.000



**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**ttipi-ttapa@ttipi.net**



**Argitaratzailea (Editeur):** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea (Président):** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea (Gérant):** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **Publizitatea (Publicité):** Kulturkari, SLU **Administrazioa (Administration):** Amaia Goia. **Berriemaileak (Collaborateurs):** Mikel Ilarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Kiaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Arrigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Inprimategia (Imprimeur):** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 26 € |
| Espainia | 26 € |
| Ipar Euskal Herria | 36 € |
| Europa | 36 € |
| Amerika | 107 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso | 21 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du


## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Orain garbi hitzegin nahi dut

Pentsatua nuen behin baino gehiagotan gainera, ez nuela apartheid-aren inguruan gehiago idatziko. Baina oraingoan apartheid-ean oinarrituko naiz. Lesakako udalbatzaren nondik norakoak azaltzeko interesgarria eta aldi berean garrantzitsua iruditu zait irakurlea gertatutakoaren jakitun izatea. Guztiok orain gertatutakoaren berri izateak, aurrerantzean gerta daitekeena hobeki ulertzeko balioko duelakoan bainago.

Gehiegi luzatu gabe, goazen harira. Denok jakinen duzuen bezala udal hauteskundeak ospatu genituela urte bat joan berri zaigu. Orduan gertatutakoan sakontzeak jada ez du merezi, baino bai orain hamabost bat egun gertatutakoan. Orain hamabost bat egun, Herria Aintzinera plataformak mozio bat aurkeztu zuen, orduan urratutako eskubideak errespeta zitzaten urte bat beranduago. Gauza aski arrunta ezta? Herritarron oinarrizko eskubideak errespetatzea. Ba Lesakako udaletxea osatzen duten Onin eta EAJ-EA taldeek ez omen dute inongo intentziorik eskubide horiek errespetatzeko. Aitzakia piloa bai baina gazteleraz erraten den bezala «balones fuera».

Guzti hau ikusita eta izenburuan diodan bezala, orain garbi hitzegin nahi dut. Hori bai, nahiz oraindik zaila egin, patxadaz eta inongo amorrurik gorde gabe egin nahi dut, garbi. Hasteko, zera erran nahi dut, ez dudala inongo konfiantzarik jende honek herriaren alde egin dezakeen lanaren inguruan. Egia erran behar badizuet orain artean konfiantza minimo bat mantentzen nuen, nahiz pentsatzeko era ezberdina eduki. Baina, azken boladan herriarekiko erakutsi dituzten jarrerak, tal- de hauek hobeki ezagutzen lagundu digu. Nola izango dut ba konfiantza minimo bat, Lesakako jendearen zati garrantzitsu bat baztertua mantentzen duen jendearengan? Oinarrizko eskubideak horrela zapaltzen badituzte, ez dut pentsatu ere egin nahi nola ibiliko diren interes minimo batzuk dituztenean.

Bestalde, erakutsitako arduragabekeriak kezkatu eta aldi berean piztu ninduten. Arduragabekeria diot, horrelako gai garrantzitsuei tratamendu berezia eman behar litzaiekelako, demokrazian sinestuz gero, noski! Baina Lesakako Onin eta EAJ-EA taldeek tratamendu berezia eman beharrean, gai hau lantzeko zen plenoa bertan behera utzi zuten (50 bat herritar zeuden plenoan) aitzakia merkeak salduaz. Aipatzekoa da ez dela hau gertatzen den lehen aldia. Galderak bat bestearen ondotik datozkit burura. Lesakako edozein talde edo elkartek mozio bat aurkezten duenean eta plenora agertu tratamendu hori ematen al zaio? Eta Onin edo EAJ-EA taldeek mozio bat sartzen dutenean denbora faltaren aitzakia ateratzen al da gai hori ez lantzeko? Zergatik horrelako jarrera herritar batzuekin? Min egiten al dizue gure jarduerak? Mesedez, udal baten kudeaketa demokratikoak hori baino serio eta gardenago izan behar du!

Bukatzeko, aurreko gutunean aipatu nuen baina orain berriro aipatu nahi dut: arazo hau moldatzea borondate kontua da, beraz, Onin eta EAJ-EA utzi itzazue zuen interesak alde batera eta gauzak moldatzen hasi, hori baita zuen ardura. Bestela egoerak okerrera egingo duela iruditzen zait eta ez dut uste horrek mesede egingo digunik.

**Iban Maia Ormazabal**
**(Lesakako Herria Aitzinerako kidea)**


UDALBILTZA®
EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltzainfo.com



## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 2004-06-19

*«Esperientzia polita eta ederra izan da (Amerikatako euskaldunekin biltzea), bi helbururekin: elizaren hurbiltasuna eta hemen, urrun izan arren, ez ditugula ahazten jakinaraztea. Fededun izaten segitzen dute eta ez dituzte beraien sustraiak ahazten, euskara eta euskal kultura belaunaldiz belaunaldi pasatzen dute».*

Javier AZPIROZ
Elizondoko apeza
D.Noticias 2004-06-18

*«Berrantolaketaren bide luze honetan, Euskal Herriko udal hautetsi ezberdinekin hasi gara harremanetan, eta, nola ez, talde politiko horietako udal hautetsiekin ere bai. Guk, berrantolaketaren bidea bultzatu dugun udal hautetsiok, gure arlora zabaldu nahi genuke Nazio Eztabaidagunetik sortutako elkarlanerako filosofia».*

Oskar GOÑI
Udalbiltzako kidea
Berria 2004-06-23

## • 11 GALDERA LABUR•

**Gazte Olinpiadan Miss Sagardo izan zinen: polita zarelako edo sagardoa gustatzen zaizulako?**
Sagardoa gustatzen zaidalako, dudik gabe, eta desfilean norbait atera behar zuelako.

**Titulu horrek balio du datozen Sanferminetarako?**
Espero dut baietz.

**Sagardoa, garagardoa edo ardoa?**
Koadrilan afaria egiteko sagardoa eta ondoko poteorako garagardoa.

**Bertsolari edo bertsozale?**
Saiatu nintzen bertsolari izaten, baina bertsozalean gelditu naiz.

**Bertso idatziak edo bapatean kantatuak tablatu gainean?**
Nahiago nuke tabladu gainean kantatzea, baina ez dut inoiz egin eta eginen ere. Eta idatziak ere nahiko lan!

**Bertsolaririk gogokoena?**
Ez dut inor bertzeen gainetik, baina bertsolari gazteak gustatzen zaizkit.

**Futbolean ere aritua, kirola gustatzen zaizu?**
Bai, gustatzen zait, bakarrik hagitz alferra naizela.

**Espainiak seguru ezetz, baina zein taldek irabaziko du futbol Eurokopa?**
Inork espero ez duen ttikiren bat izanen da finalean. Txekia?

**Publizidadea ikasten ari zara. Zein slogan erabiliko zenuke Sanferminak saltzeko?**
Sanferminak, zure esku!

**Zer falta zaie Lesakako Sanferminei?**
Egun gehiago izatea eta eguraldi ona egitea.

**«Pobre de mi» ondoko astelehena, ohatzean edo Iruñean?**
Azkeneko urteetan lanean eta aurten ere baietz uste dut.



**Maite BIDARTE**
*Lesakako gaztea*

Maki Rodrigo
Lenkonea
Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541


SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN


«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • ✆ 948 630 763

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

LANA

# Baztan-Bidasoako UGT sindikatuak zuzendaritza batzordea osatu du

## Ekainaren 13an egin zuen kongresua Berako egoitzan

**ttipi-ttapa**

UGT sindikatuak Baztan-Bidasoa eskualdeko batzordeko zuzendaritza osatzeko kongresua egin zuen ekainaren 13an Berako egoitzan.

UGTk eskualdean 368 afiliatu dauzka gaur egun, zortzi federaziotan banatuak eta horien ordezkari gisara, 25 delegatu izan ziren Berako kongresuan.

Irekiera ekitaldian, Helena Santesteban Berako alkateak, Juan Antonio Cabrero Nafarroako UGTko Idazkari Nagusiak eta orain arte sindikatua zuzendu duen Kudeaketa Batzordeko lehendakaria zen Pedro Mazasek hartu zuten parte.

Kongresu honek honako zuzendaritza batzordea aukeratu zuen: Patxi Altxu Iparragirre izanen da idazkari nagusia; Joaquin Bengoetxea Landa Antolatze idazkaria; eta Pedro Mazas Solar, Sonia Andresena Zubigarai eta Laureano Calvo Zugarramurdik osatuko dute idazkaritza exekutiboa.

Behin idazkari nagusi kargua hartutakoan, Patxi Altxu iturendarrak eskerrak eman zien kongresuan parte hartu zuten sindikatu kideei eta zuzendaritza batzorde berria langileen aldeko lana egiteko prest dagoela azpimarratu zuen. Inguru honetan ongizate maila egokia izanda ere, zenbait arazo badirela eta horiek moldatzen saiatu behar duela UGTk erran zuen idazkari nagusiak: *«Aceralia Transformados bezalako enpresa multinazional baten inguruan gehiegizko dependentzia ekonomikoa daukagu eta horrek etengabe ezinegona sortzen du, beti hemendik urrun hartzen diren erabakien menpe baikaude. Tubo sektorea Condesari saltzea da horren adibidea».*




Argazkia: Joseba OLAGARAI

**Ezker eskuin, Laureano Calvo, Pedro Mazas, Patxi Altxu, Joaquin Bengoetxea eta Sonia Andresena, Baztan-Bidasoako UGT sindikatuko zuzendarita batzordeko kide berriak.**

## Informatika eta Internet ikastaroak emakume eta gazteei zuzenduak

Emakume eta gazte tituludunei zuzenduta Informatika eta Internet ikastaroak antolatu dituzte Cederna-Garalur eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Pilnar eta Equal erakundeen laguntzarekin. Ikastaro guziak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean emanen dira, 9:30etatik 12:00etara. Lehendabizikoa, «Nola antolatu gure ordenagailua windowsekin?» uztailaren 1ean akitzekoa da. Uztailaren 5, 6 eta 7an «Word-ekin dokumentuak lantzen ikasi» ikastaroa emanen da, uztailaren 12, 13, 14 eta 15ean «Internet nabigatzea» eta uztailaren 19, 20, 21 eta 22an «Posta elektronikoa». Informazioa lortzeko eta izen emateko Cederna-Garalurera (948 625122 telefonoa) deitu behar da, ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago eta 30 euro ordaindu.












BERA

# Ibardingo Plan Estrategikoa aurkeztuko dute uztailaren 2an

## Jabe berria duen Zalaingo lantegian hauteskunde sindikalak egin dituzte

**Amaia eta Ainhoa**

Ibardingo gainean Bera aldetik dauden benta, jatetxe eta supermerkatuek euren interesak defenditzeko elkartea sortu zuten 1996an. Orain, Urruñako partean dauden bentak ere elkartera biltzeko prozesua abiatua dute, eta horregatik, aipatu elkartea Europa mailakoa izatea nahi dute hemendik aitzinera.

Elkarlanean arituz, zerbitzu berriak eskaini nahi lituzkete, Ibardingo bizitasuna mantentzeko eta azpiegitura eta irtenbide urbanistikorik egokienak bilatzeko. Horretarako, Ibardingo Merkataritza, Hostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak, beharrezkoa ikusten du gaur egungo egoerari buruzko azterketa sakona egitea, bere ezaugarriak, puntu ahulak, indartsuak eta dauden aukera eta mehatxuak zein diren ikusteko. Ibardingo gainean dagoena, merkataritza eremu berexia da, bi estatu ukitzen dituelako, bezeroak, zerbitzuak eta negozioak ere konpartitzen dituztelako. Beraz, egoera bere osotasunean aztertzea beharrezkoa dela ikusten dute, eta bide horretan, Elkarteak Ibardingo Plan Estrategikoa prestatu du. Uztailaren 2an eginen dute plan honen aurkezpena Ibardingo Benta Berrin.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

### "Bera Mugarik Gabe"

**Ekainaren 14tik 20rako astean Berako Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak "Bera Mugarik Gabe" ekitaldi sorta antolatu zuen. Ekimen honen helburua bertako jendea eta etorkinak hurbiltzea izan da. Besta egun haundia ekainaren 20ean izan zen. Goizean areto futbol partiduak eta haurrendako jokoak izan ziren. Arratsaldean herrialde desberdinetako ordezkariek euren platerak prestatu eta dastatzeko aukera izan zen. Akautzeko abesbatza, dantzari eta trikitilariek beraien saioa eskaini zuten. Aipatzekoa da aste guzian zehar antolatutako ekitaldietan jende aunitzek parte hartu duela. Hala ere ekainaren 20eko besta eguna arrakastatsuena izan da eta antolatzaileak eta etorkinak pozik agertu dira izandako harrerarengatik.**

### ELAk irabazi ditu Zalaingo hauteskundeak

Zalaingo tubo lantegia Condesak erosi zuenetik, lehen hauteskunde sindikalak egin dituzte joan den ekainaren 22an. Goizeko 5etan hasi zituzten hauteskundeak eta arratsaldeko 5ak arte irekiak ziren bozkatzeko mahaiak. Parte hartzea altua izan zen, osotara 474 langiletatik 451ek bozkatu baitzuten, %95,15ak. Emaitzei dagokionez, ELArenak dira 13 delegatuetatik 5, LABek 4 delegatu lortu ditu, UGTk 2, eta azkenik, CCOOek eta Kuadroen Konfederazioak delegatu bana lortu dute.

FLASH

### Sanestebanak iragartzeko kartel irabazlea

Ekainaren 19an akautu zen Berako bestak iragartzeko kartel lehiaketarako bigarren deialdia. 19 lagunek aurkeztu zuten beraien lana eta parte hartzaile gehienak beratarrak izan direla aipatzekoa da. Epaimahaiak lan guztiak aztertu ondotik, Miren Errandonea eta Marian Biurrarenak elkarlanean egin dutenari eman dio 300 euroko saria.

### Udal zergak ordaintzeko epea

Uztailaren 23a arte zabaldua dago 2004ko lehenbiziko seihilekoaren kontribuzioaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu errekargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

### Igerilekuetan kalteak

Ekainaren 23an, San Juan gauean, Berako Igerilekuetan ezezagunek hondamenak egin dituzte: mahaiak eta aulkiak putzura bota, porlanez hartutako hesiak ipurditik ateri...

### Hirigintza Plana

Uztailaren 5ean Iruñean sinatuko dute Hirigintza Plana. Gero esposizio publikoan jarriko da. Hurrengo alean emanen dugu Plan honen berri.


ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ✆ 948 631155 • BERA


Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera · Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

Xirgil
✆ 948 631462
Altzate 1 • BERA

LESAKA

# 3.749.613 euroko aurrekontua ahobatez onartu du Udalak

## Kultur Etxea moldatzen eta igerilekuak estaltzen hasiko da

Aitor AROTZENA

Udalak 3.749.613 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, Herriko Etxeko batzarrean ahobatez adostutako aurrekontuaren arabera. Andra-Mari Zahar Etxeak, berriz, 412.454 euroko aurrekontua izanen du.

Udal aurrekontuari dagokionez, gastuen erditsua, 1.836.578 euro inbertsioetan joanen da. Mendian plantazio eta lan ezberdinak egiteko 240.000 euro erabiliko dira. Urte honetan abiatuko den proiekturik haundiena konbentuan Kultur Etxea moldatzearena izanen da. Proiektua idazteko 150.800 euroko aurrekontua izanen da eta obrak egiten hasteko (liburutegia) 104.400 eurokoa. Igerilekua estaltzeko proiektua egiteko 45.000 euro erabiliko dira eta Musika Eskolaren proiekturako 39.000 eurokoa. Nabaz auzoko bidea zabaltzeko eta mendi pistak hobetzeko 150.000 euro erabiliko dira. Babes Ofizialeko Etxebizitzetan lokala erosteko 99.900 euro erabiliko dira, Irain eskolan moldaketa lanak egiteko 85.000 euro eta igerilekuetako eraikuntza egokitzeko 65.000 euro.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Haurraren Eguna ospatu zen ekainaren 19an, Irain eta Otxogorrinea Guraso Elkarteek antolatuta. Goizean jokuak, herri kirolak eta krosa izan zuten eta arratsaldean bertze hainbat ekitaldi, tartean Euskaraokea.**

## Udal Musika Eskolako matrikula

Musika Eskolak datorren ikasturterako matrikulak egiteko modua aldatu du. Orain arte matrikulatuak egon diren ikasleei automatikoki matrikulatuko zaie 2004-2005 ikasturterako. Seigarren kurtsoa egin duten ikasleei, automatikoki matrikulatuko zaie instrumentuko zazpigarren mailan. Matrikula egiteko agertu behar duten bakarrak honakoak izanen dira: ikasle berriak; aurten musika eta mugimendua bigarren maila egin duten ikasleak, instrumentua aukeratzeko; matrikulan aldaketaren bat egin nahi duten ikasleak (Ganbara Musika, Banda, bigarren instrumentua edo bertze ikasgaiak...) edo eskola utzi nahi duten ikasleak. Matrikulan aldaketaren bat egiteko edo apuntatzeko uztailaren 2a baino lehen edo irailaren 1etik irailaren 10era egin beharko da.

# Asier Biurrarena eta Ibai Retegi igantziarra Beti Gaztetik Osasunara

## Denboraldi bikaina osatu dute herriko taldean

A.A.

Denboraldi haundia egin dute aurten Beti Gazteko infantilek eta horrelakoetan talde haundiek begiz jo ohi dituzte jokalariak. Hori gertatu zaie lerrenbordako Asier Biurrarena Ubiria eta ama lesakarra duen Ibai Retegi Zamorano igantziarrari. Beraiek izan dira taldeko golegile nagusiak, 36 partidutan 48 sartu baititu igantziarrak eta 35 lesakarrak eta heldu den denboraldian Osasunako elastiko gorritxoa jantziko dute haur mailan. Aldaketa haundia izanen da bientzat, Beran ikastetik Iruñean ikastera eta Larrabide Kirol Erresidentzian bizitzera pasatuko baitira, bertze kirolari aunitzekin batera.

ARTXIBOKOA

**Ezker-eskuin Ibai Retegi igantziarra eta lerrenbordako Asier Biurrarena, Beti Gazterekin jokatutako partida baten aitzinetik. Heldu den urtean Osasunako kamiseta jantziko dute.**



ETXALAR

# Juanito Maia eta Santiago Mikelestorena irabazle Larraburuko magra sariketan

## Sakanatik etorri dira aurtengo igerilekuetako arduradunak



ARGAZKIA: NEREA

**Larraburuako mus sariketan parte hartu duten bikoteetako batzuk. Juanito Maia eta Santiago Mikelestorena irabazleek magra hartu dute saritzat.**

**Joseba eta Nerea**

Maiatz hondarrean akabatu zuten Larraburuko kideek aurtengo magra sariketa. Urtero bezala, igandero-igandero jokatu dituzte mus partidak Larraburua egoitzan eta 24 partehartzailetatik lau bikote izan dira irabazleak. Izenak dioen bezala, magra hartu dute saritzat lau bikoteek eta gainerako partehartzaile guziek ardo botil pare bat eraman dute. Irabazleak Juanito Maia eta Santiago Mikelestorena izan ziren. Bigarren lekuan Leon Goienetxe eta Prudentzio Arburua gelditu ziren. Ondotik, hirugarren, Candido Egurce eta Antonio Ameztoi eta laugarren Jose Bertiz eta Jose Luis Arretxea. Finala eta sari-banaketa ekainaren 20an egin ziren eta azkeneko urtetan partehartzaile guziek afaria egiten badute ere, aurten hameketakoa egin zuten Larraburuan. Jabier Indaburu antolatzaileak erran digunez hagitz konten daude lehiaketak izantako martxarekin eta heldu den urtean segitzeko animoz omen daude.

### *Igerilekuetako arduradunak*

Ekainaren 19an ireki zituen ateak udal igerilekuak. Aurten igerilekuko arduradunak bilatzea inoiz baino gehiago kostatu zaio udalari, lehenengo deialdira ez baitzen inor aurkeztu eta tramite batzuen ondotik Sakana aldetik etorri diren Oihana Olaberria eta Gorka Santesteban izanen dira arduradunak aurtengo sasoian, abuztuaren 31 arte.

Urtero bezala, igerilekura joateko sarrera ordaindu beharko da. Hauek dira sasoi honetako prezioak: 7tik 10 urte arte 1,70 euro; 11tik 16 urte arte 2,80 euro eta hortik goitikoek 4,15 euro. Baina eguneko sarreraz gain sasoi osoko bonoak ere badaude: 7tik 10 urte arte 10,35 euro; 11tik 16 urte arte 17,20 euro eta hortik goitikoek 33,40 euro. 7 urte baino gutiago duten haurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

### *Udaleku Irekiak*

Heldu den astelehenean, uztailak 5, hasiko dira Etxalarren aurtengo Udaleku Irekiak. Bertze urte batez herriko haur andana bilduko da goizero-goizero hilabete osoan ongi pasatu eta bide batez hainbat gauza ikastera. Aurten Trini Perugorria beratarra eta Amaia Agirre herritarra izanen dira begiraleak. Hiru orduz elkartuko dira haurrak goizetan, astelehenetik ortziralera eta arduradunek erran digutenez asteko egun bakoitza gai baten inguruan antolatu dute. Horrela, sukaldaritza, kirola, antzerkia, musika eta bertze hainbat gai ukituko dituzte. Horretaz gain, igerilekuetara irteerak, eskurtsio ttikiak eta bertze hainbat ateraldi ere eginen dituzte. Dudarik gabe, aspertu bederen ez dira eginen.



### *Etxalarko Bentako II. Igeriketa txapelketa*

Ekainaren 20an egin zen Etxalarko Benta Hoteleko bigarren igeriketa txapelketa. Guzira 47 igerilarik parte hartu zuten eta hauek izan ziren irabazleak, adin ezberdinetan: Maider Jabalera, Alaitz Aguilar, Ainhoa Aguilar, Teresa Rojo, Andoni Rodriguez, Andrea Irazoki, Itziar Mitxelena, Beñat Etxekolonea eta Olaia San Miguel. Antolatzaileak hagitz kontent gelditu dira parte hartzearekin eta lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiete igerilariei, gurasoei eta txapelketa posible egin duten laguntzaile guzieri.






ARANTZA

# Arantza Rock jaialdia abuztuaren 21ean eginen da

## Herriko ttikienak joan den aste erditik udako oporraldian daude

**Nerea ALTZURI**

Udako giroa nabari da herrian ere. Ia ikasturteari aio erran diete gaztetxoek, eta herrian mugimenta nabariagoa da. Herriko karrika eta guneak josteta lagunez beteak dira maiz. Irailera bitarte oporrak dituzte eskolaumeek eta urtero bezala, ez dute seguraski denborarik galduko. Liburuak eta eskolako materiala armairuan utzi eta kirol eta kultur esparruetako ekintzak egiteko probextuko dituzte udako hilabeteak. Egun luzeak izaten ditu udak eta eguraldi ederrak izaten dira normalean. Horiek ekintza ezberdinak egiteko erraztasuna dute tartean.

### ARANTZA ROCK 2004

Herriko gazte talde bat ere Arantza Rock musika kontzertua prestatzen ari da burubelarri. Heldu den abuztuaren 21ean, larunbatean ARANTZA ROCK 2004 izanen da. Joan den urtean ez zen egin kontzertua eta urteak gibelera eginez, eguraldiarengatik aldi batean bertan behera geratu zen kontzertua. Urteak badira Arantza Rock egiten dela. Dozenatik gora edizio pasatu dira. Lan aunitz egin dute gazteek eta Arantza Rock izenak herria kanpoan gehiago ezagutarazteko ere balio izan du. Urte ezberdinetako kamisetak Euskal Herriko edozein eskinetan ikusten dira oraindik ere! Aurtengo kontzerturako musika taldeak lotuak dira: FJORD, KURAIA, AFRIKA (edo SEI URTE) eta SURFIN KAOS. Kamisetak ere iadanik bidean dira eta agudo paratuko dira nonnahi eskualdean salgai.



### AEKko barnetegiak

**Uztailaren 5etik abuztuaren bukaerara bitarte, AEK-ko barnetegiak izanen dira Arantzako Aterpean. Bi hilabetez lau hamabortzalditan irakasle eta ikasle taldeak banatuko dira. Bizituko dute euskaldun berriek ere herria. Dozenaka lagunek eguneko 24 orduetan euskara hutsean aritzeko eta euskara entzuteko aukera izanen dute bertze aldi batez. Euskara ikastera eta euskara hobetzera etortzen dira barnetegikideak. Euskal Herriko puntu ezberdinetatik eta Euskal Herritik kanpoko herrietatik etortzen direnak ere izaten dira. Eskolan klaseak izaten dituzte eta gainerako zerbitzuak Aterpean eskeintzen zaizkie. Seguru ederki pasatuko dutela!**



ARTXIBOKOA

**Arantzako haurrek euskara mankomunitateak antolatutako udalekuetan jostatzeko aukera izanen dute aurten ere.**

### Mezak San Juan Xarren

San Juan eguneko mezaren ondotik, joan den igandeko meza, eguerdiko 12:00etan izaten dena San Juan Xarren izan zen. Uztaileko igandetan, igandeko meza San Juan Xarren izanen da urtero bezala.

ARTEKARI
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik ortziralera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713
Non: La Villa karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

PIKABEA
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

IGANTZI

# Sertecnak eginen du ur-sare berriaren proiektua

## Irailetik aitzinera Osasunarekin hasiko da entrenatzen Ibai Retegi

Oskar TXOPERENA

Ur sarea moldatzeko lanak aurten hasteko asmoa dauka Herriko Etxeak. Horretarako dirulaguntza badagoela erran genuen aitzin horretan. Baina horretarako, jakina, proiektua egin behar da lehenbiziko. Proiektua zeinek egin behar duen jakiteko bi deialdi egin behar izan dituzte. Lehenbiziko saiakeran inor ez aukeratzea erabaki zuten eta deialdi berria zabaldu zen. Bigarrenean Iruñeko Sertecna enpresa bereizi zuten, ur biltegi berriaren proiektua egin zuena bera. 32.428 euro gostako da proiektua eta obraren jarraipen teknikoa.

### *Bertsolariak eskolan*

Ekainaren 11n, ikasturtearen azken txanpan, bertsolarien bisita izan zuten eskolan. Hendaiako bertso eskolako hiru neska gazte, Maddalen, Maite eta Kristine aritu ziren bertsotan eskolan, Sustrai Kolina euren irakaslearen laguntzarekin. Horretarako gaiak eta punttuak prestatuak zizkieten aitzinetik bertako eskolako haurrek. Saio ikaragarri polita izan zen eta gogoz jarraitu zuten eskolako haur guziek.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Ez da beharbada futbola xoko honetan sobera maiz aipatu dugun kirola. Eta ez da izan futbolean aritzen den herritarrik ez dagoelako. Aukera ezin hobea eman digu oraingo honetan Ibai Retegi gazteak. Izan ere, orain arte Lesakako Beti Gazte futbol taldean aritzen zenak, heldu den ikasturtea Iruñean eginen du, Osasuna futbol taldearen agindupean. Gainera, ikasketak bertan jarraituko ditu eta gainerako bizimodua Nafarroako bertze hainbat kirolarirekin batera Larrabide Kirol Erresidentzia famatuan eginen du. Jakina, hortik aitzinerako futbol-ibilbidea zaila izanen da Ibaientzat, baina hainbertze maite duen kirolaren ametsak betetzen ari zaizkio poliki-poliki. Futbolari dioten afizioa ezagututa, ez zaio bide berri honetan familiaren laguntzarik faltatuko, bere aita eta bi osabak futbolean anitz arituak baitira. Lesakako Asier Biurrarenarekin batera joanen da Iruñea aldera. Zorionak, Ibai.**



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Sustrai Kolinak eta Hendaiako bertso eskolako Maddalen, Maite eta Kristinek saio ikaragarri polita eskaini zuten eskolan, ikasturte akabailako ekitaldien barnean.**

Herria ezagutuz



### *Medikuaren Etxea*

1954an hartu zuen Nafarroako Gobernuak Herriko Etxeek medikuen esku etxe bat paratu behar zutela erraten zuen akordioa. Etxe horrek bertan izan behar zuen kontsulta gainera. 1966an hasi zen Igantziko Herriko Etxea leku bila medikuaren etxea egiteko. Azkenik, 1968an hasi eta hurrengo urtean akautu zen etxea. Aitzinetik, ordea, eztabaidak izan ziren Udalbatzaren baitan lekua aukeratzerakoan. Zinegotzien ustetan bi leku ziren egokiak etxea egiteko: Eskola ondoko Seroran baratzia eta Larraldenea etxea botatzerakoan gelditutako alorra. Irisarriko Martinez Jaunaren eritziaren kontra, denok dakigun bezala, Larraldenea deituriko lekuan egitea erabaki zen. 626.000 pezeta gosta zen etxea egitea eta Diputazioak 40.000 pezetako dirulaguntza bertzerik ez zuen eman.

Gaur egun notizi da Udalbatzak maiatzako bilkuran saltzera ateratzeko akordioa hartu zuelako. Enkante edo subastaren bitartez eginen da salmenta beharrezkoak diren tramiteak egin bezain abudo.

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Zure inguruan klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxo...) eta arratoi-xagubioz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polilien kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA

## ITUREN



Argazkia: Amaia MINDEGIA

**Sari banaketaren ondotik, berendu ederra izan zuten Ituren, Aurtiz eta Zubietako haurrek.**

# Ipuin eta marrazki lehiaketako sariak banatu zituen Ibintzak

### Ekainaren 19an egin zen Herriko Etxeko Ganbaran

**ttipi-ttapa**

Iturengo Ibintza taldeak hirugarren urtez antolatutako ipuin eta marrazki lehiaketako sariak banatu ziren ekainaren 19an Herriko Etxeko Ganbaran. Ipuin lehiaketan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek «Estralurtar batekin bizitzen» gaiari buruz idatzi zuten eta Jon de los Arcosen ittundararren lana izan zen onena epaimahaiaren ustez. 3. eta 4. mailakoek «Ispilu baten aurrean» gaiari buruz idatzi zuten eta hemen Manex Zubieta saritu zuten. Marrazki lehiaketan, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek «Uda» izan zuten gaia eta Zubietako Beñat Etxekoloenearen lana saritu zuten. Haur Hezkuntzakoek gai librea izan zuten. Zubietako Maritxuren marrazkia saritu zuen epaimahaiak eta Aurtizko Andoniren collagea ere saria merezi izan zuen.

Sariak banatu ondotik, Ibintza taldeak prestatutako berendu ederra dastatu ahal izan zuten neska-mutikoek.

## ARKUPEAK

# Aitatxi-Amatxien Eguna ospatuko da uztailaren 26an Etxalarren

### Uztailaren 27tik abuztuaren 2ra Segoviara joanen dira jubilatuak

**ttipi-ttapa**

Uztailaren 26an, Aitatxi eta Amatxien Nazioarteko Eguna ospatuko da eta eskualdekoak Etxalarko Bentan bilduko dira. Arkupeak elkarteak antolatu duen besta honetan izen emateko epea uztailaren 3ra bitarte zabalik izanen da eta 25 euro ordaindu beharko da. Izenak eman ondotik, autobusen irteerak eta ordutegia adieraziko dute elkartetik baina eguneko egitaraua zehaztuxea dute.

Eguerdiko 12:00etan Meza Saindua izanen da Etxalarko elizan. 14:00etan bazkaria izanen dute Etxalarko Bentajatetxean honako menuarekin: solomo eta txorizo iberikoak; etxeko patea, txatka entsalada, fritoak, baratxuri eta ganba nahaskia, piperrak bakailoarekin beteak, legatz erdia, solomillo erdia, etxeko tarta izozkiarekin eta etxeko ardoak, kafea eta kaba kopa bana. Bazkaldu ondoren, aitatxi eta amatxi bakoitzari oparitxo bat emanen zaio eta arratsaldeko 17:00etatik 19:30etara dantzaldia izanen da. Ondotik, autobusak aterako dira norbere etxera bueltatzeko.

Bertze aldetik, uztailaren 27tik abuztuaren 2ra, Segoviako Venta Magullora bidaia eginen du Arkupeak erretiratuen elkarteak, Gaztela aldeko landak ezagutzeko. Segovia, Salamanca, Zamora eta bertze zenbait leku ezagutuko dituzte eta gariaren mozketa garai batean bezala nola egiten duten ikusteko modua izanen da.










JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN
666 235 466
948 630 683
Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

MALERREKA

# Burrunba gazte kultur taldea osatu da Donezteben

## Kultur ekitaldi eskasiari aurre egin nahi diote ekintzak antolatuz

ttipi-ttapa

Malerrekan dagoen eskaintza kulturalaren eskasiaren aurrean, eskualdeko gazte talde batek elkartea sortu du. Jada elkartean 100 gazte baino gehiagok izena eman dute eta ekitaldi kulturalak antolatzea dute helburu nagusia. Orain arte egin diren bilerен fruituak jadanik ageri dira.

Egituratze prozesuan dagoen elkarteak Burrunba izena du eta Doneztebe kulturalki dinamizatzea du helburu. Lehen ekitaldia, Doneztebeko besten bezperan Santa Luzia plazan egin zen kontzertua izan zen: Saiak, Trikidantz, Ttakunpa (tinbalak), Eko4 (maketa aurkeztu zuen) eta kartelaren buru izan zen Eraso! taldeek jo zuten. Kontzertu garaian, bertan bildutakoen artean gitarra bat zozketatu zen.

Gainera, Doneztebeko bestetan, elkarte berriak ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu zuen. Kuadrillen arteko ginkana batekin hasi zituzten bestak, ondotik gazteen arteko bazkaria izan zen, karaokea ere antolatu zuten eta "Txaranga-poteoa" egin zen herriko Beti-Alai txarangarekin. Datozen hilabeteetan hainbat ekitaldi kultural antolatzeko asmoa dute elkarteko kideek.

Izena eman nahi duten Malerrekako gazte guziek (40 urte arte), ortziraletan 20:30tatik aurrera Doneztebeko Santa Luzia plazaren parean dagoen Los Arcos ostatuan burutzen diren edozein bileretara azalduz egin ahal izanen dute.



Argazkia: Miren Bidarte

**Ekainaren 23an Doneztebeko Turismo bulegoa ireki zen. Horretaz gain, Malerreka eta Bertizaranako turismo eta zerbitzuen mapa ere argitaratu da. Mapa hau bisita-txartela eta turistei ezagutzeko emateko gida dela azpimarratu dute. Turismo bulegoari dagokionez, Doneztebeko Udalak bultzatu du eta liburutegiaren eraikinean lokala moldatu du horretarako, Bear-Zana pilotalekuaren ondoan. Idoia Sanz izanen da zerbitzuaren arduraduna eta irailaren 15era zabalik izanen da. Ramon Etxebeste alkateak aipatu duenez zerbitzu hau behar-beharrezkoa da.**

## Heriotz lazgarria

ttipi-ttapa

Ekainaren 21ean, Hector Reguera Trantxe, 24 urteko gazteak bere buruari su eman zion, Doneztebeko Santa Luzia karrikan dagoen jubilatuen elkartean gertatu zen ezbeharra. Doneztebeko udaltzaingoaren arabera, gazteak bere burua erregaiarekin busti zuen, eta ondoren su eman zion. Ostatuan lanean zeuden neskalaguna eta honen ama laguntzen saiatu zirenean ere erre egin ziren. Mutila helikopteroan eraman zuten ospitalera, baina bidean hil zen. Zauritutako emakumeak ere ospitalera eraman zituzten.




C/Amezti,1
31740 DONEZTEBE (NAFARROA)



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab…

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

## GOIZUETA



# Xiba Euskal Herrien arteko jolasen finalean izan zen herriko taldea

### Ekainaren 20an burutu zen Tolosan

**Esteban AROTZENA**

Eider, Oihana, Eneritz, Jone, Nekane, Garbiñe, Itsaso, Ibon, Josu, Gorka, Mikel, Fernando, Migel Angel, Igor, Unai eta Luixek osatutako herritarren koadrilak zapelaik lortu ez bazuen ere, lan txukuna egin zuen ekainaren 20an Tolosan jokatutako Xiba euskal jolas, joko eta kirolen finalean, baita egun batzuk lehenago Arbizun egindako Nafarroako kanporaketan ere. Gainera, partaide eta antolatzaileen helburua ez omen zen lehia bera, galtzear dauden hainbat euskal joko berreskuratzea baizik.



Argazkia: Iñigo Lujanbio

**Aralar Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eman zuten Ganbaren ekainaren 4an.**



Utzitako argazkia

**Argazkiko gaztetxo hauek sarituak suertatu dira Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen literatur lehiaketan. Herriko eskolak ere saria jaso zuen etnografia lehiaketan parte hartzeagatik.**



## PERTSONAIA

### Joxe Ramon ZABALA

# Kilotik goitiko onddoa harrapatu du denboraldi hasieran

Goiz hastea seinale ona baldin bada, onddo denboraldi ederra izan daiteke aurtengoa. Ekainaren 6an kilo batetik goitiko ale hau bilatu zuen Joxe Ramon Zabalak. Gustora zegoen, noski, sasoiko lehenbiziko onddo eder honekin.

## ARESO

# Kultur Eguna, Korpus eta hauteskundeekin batera

### San Joan gaua ospatu zuten haurrek

**Juana Mari SAIZAR**

Ekainaren 13an, hauteskunde eguna, korpus kristiren ospakizuna eta kultur eguna ere. Goizetik eguraldi ona aprobetxatuz meza santua eta prozesioa. Aspaldiko partez XVII. mendeko kustodia zaharra konpondu eta txukunduta erabili zuen Mikel apaiz gazteak. Eguerdian eta plazako larratxean baserritarrari omenaldia eginez hainbat azienda ikusgai izan ziren. Dantzari txikiak, herri bazkaria bertsolariarekin, aizkora apostua Asier Aresoko gaztea, Rekondo leitzarraren kontra eta eguna alaitzen trikitilariak. Aurtengoan bai kultur taldeak eta jendeak gustora bukatu zuten.

### *San Joan gaua*

San Joan gaua urteko motzena eta ohitura zaharra berrituz, herriko umeak gozatu ederra hartu zuten salto eginez, aurretik bildutako kartoi eta paperarekin egindako suan.



Argazkia: Juana Mari

**San Pedro jaiak uztailaren 3 eta4an ospatuko dira eta soka tira jardunaldi bat larunbatean eta plazan ikusgai izango da.**

## ARANO

# Maider Ansa txapeldun Kursaalen

**Kontxi KLABER**

Ekainaren 19an Donostiako Kursalean jokatutako Euskal kantu txapelketako finalean izan zen Maider Ansa. Bi sari eskuratu zituen, bakarkako saria berak jaso zuen Mikel Urdangarinen "Jadanik" kantarekin, eta bigarrena, sari berezia eman zioten adierazkortasunarena. Txapela jasotakoan Aitorri eskaini zion, joan zen udan istripuz hil zen bere lehengusuari.

LEITZA

# Erleta eskolako zuzendaritza taldea aldatu da

## Heleni Zabaleta izanen da zuzendaria

**Mikel ILLARREGI**

Uda hasita, udako oporrak izaten dira eskolako ikasle eta irakasleentzat. Nobedaderik ez litzateke izanen, aldaketarik ez balego, baina orain Erleta eskolan zuzendaritza taldean aldaketa izan, izan da. Zuzendaritza taldeak aurreko hile honen amaieran, ekainean alegia, beraien kargua utzi eta talde berriak hartu du betebehar hau. Heleni Zabaleta zuzendaria izanen da, Sagrario Lasarte ikasketa burua eta Rosarito Ormazabal idazkaria.

### *Igerilekua zabalik*

Udan sarturik joan den urteko beroaldiak datozkigu burura. Hala ere, adituek diotenez, aurtengoa ez da halakoa izanen. Dena den, gorputza freskatzeko herrian ditugu igerilekuak. Orain gutxi arte egokitzapen lanak egiten aritu badira ere, jada zabalduta daude. Hona hemen sasoiko sarreren prezioak:

- 4-13 urte bitarteko haurrak: 18,03 euro.
- 14-17 urte bitarteko gazteak: 27,05 euro.
- 18 urtetik gorako larriak: 51,09 euro.
- 65 urtetik gorako adinekoak: 18,03 euro.

### *Sahararen aldeko jaialdia*

Ikaragarria, "oilo pikorra jartzeko modukoa" duela hamabost egun Sahararen alde eskaini zuten jaialdi-festa. Inprobizazio-saioa bailitzan, kalitate handiko jaialdia osatu zuten taularatu ziren guztiek. Beste pauso bat izan zen, pauso landu eta sendoa. Baina ikusleen aldetik nahi beste jende ez zela bildu esan beharra dago.

### *Hitza*

Dakizuenez, aspaldi honetan, gure etxeetan goizero asteartetik igandera "tolosaldeko eta leitzaldeko HITZA" jasotzen dugu. Honetan, egunero, Leitzaldea izenburupean, Leitza eta Aresoko berriak jasotzen duen orrialdea azaltzen zaigu. Hemendik aurrera Hitza egunkaria goizero jaso nahi bada, egunkariaren bitartez zabalduriko orritxoa bete behar da edota 943 30 43 46 telefono zenbakira deitu.

### *442 sinadura*

Joan den urte amaieran, CONVIAL enpresak Albiño deituriko parajean harrobi bat zabaltzeko baimena eskatu zuen, duela hamar urte aurkeztu zuen proiektuan oinarrituz. Hau jakinik, herritar talde batek Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzailea osatu zuen. Beraien lehengo lana Herri Kontsultaren aldeko sinaduren bilketa izan da. Guztira 442 sinadura bildu dira. Sinadura hauekin batera, herritarrek zer nolako iritzia duten jakiteko udalak herri kontsulta antola dezan eskatzen dute. Hau guztia egungo legearen arabera egina da eta horregatik hemendik aurrera udalak eman behar ditu hurrengo pausoak.

### *Bai euskarari Akordioa*

Bai Euskarari Akordioa egitasmoaren aurkezpena izan zenean azaldu zen, hurrengo bi hilabetetan, herriko talde, elkarte, enpresa eta jarduera duen edozein talderekin harremanetan jarriko zela Aitziber Bergara. Jada bi hilabete horiek igaro dira eta lehengo fase honen emaitzak aztertu behar ´dira, azaletik bada ere. Lehenbizi esan uztailaren 2an, arratsaldeko 8:30etan ziurtagirien banaketa izanen dela. Honetarako 60ek aurkeztu dute konpromisoa hartzeko plana.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

**Imanol 14 urtez izan da eskolako zuzendaritzan eta hauetatik 7 zuzendari. Pilartxo berriz, 5 urtez zuzendaritzako ikasketa burua izan da eta Enrike ikasturte honetan izan da idazkari**

### *Maxurrenea herrintzat*

Duela hamabost egun Maxurrenearen aldeko ekimena institutoaren esku izan bazen ere, uztailean zinemazaleek antolatu dute uztailaren 2rako, «Nemoren bila» pelikula eskainiz plazan.

### *Hauteskundeekin Europara?*

Zeresan handia izan dute orain gutxi izandako hauteskundeek. Asko dira aztertu daitezkeen puntuak baina bi aipatzearren, batetik abstentzioaren pisu nabarmena eta bestetik legaltzat eman ez duten taldearen emaitzak.

| | |
|---|---|
| HZ | 396 |
| UPN-PP | 189 |
| EA | 138 |
| ARALAR | 112 |
| PSOE | 68 |
| PNV-EAJ | 58 |
| IU | 7 |
| Boto-emaileak | %40,41 |

### *San Joan bezpera*

Hau idatzi dugunean, oraindik San Joan bezperako ekitaldiak ospatu gabe ziren. Hala ere, aurrez gogotik aritu dira txikiak eta gazteak ingurutxoa ensaiatzen.



## KANPOTIK ETORRIAK (eta 10)

Otsailean hasi genuen bilduma honi bukaera emateko ordua iritsi da. Ekuador, estatu espainiarretik, Alemania, Marokko, Belgika, Aljeria, Argentina eta Ingalaterrako lurraldetatik ekarri ditugu ordezkariak gure orriotara. Izan, noski, askoz ere gehiago badira: Mexiko, Sahara (hauei iaz egin genien elkarrizketa),... eta estatuko beste toki askotatik, baita inguruko eta urrutiagoko Euskal Herriko beste asko eta asko. Zailagoa izan arren, kanpora joandakoak ere badira. Lekuko hauen bitartez Leitzan ere, migrazio mugimendua bizirik dagoela erakutsi nahi izan dugu. Kultura, ohitura, hizkuntza, erlijio ezberdinak ikusi ahal izan ditugu adibide besterik ez ziren hauen bitartez. Interesgarria izanen zelakoan hau guztia, kide hauen zenbait kontu bitxiekin nahastu dugu, horregatik eskerrak gure galderei beste interesik gabe erantzun duten guzti hauei.

BAZTAN

# Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 6tik 10era

## Ortzegunean herritarren arteko desafioa bizikletaz eta lasterka

**Asteartea 6**
**Ezkilen Egune**

**9:30etan** ezkil jotzea giroa berotzen hasteko.

**Asteazkena 7**
**San Fermin egune**

**10:30etan** Txupinazoa bestei hasiera emateko. **11:00etan** Meza Fermin Sainduaren omenez herriko elizan. Meza ondoren luntxa herriko elkartean. **16:00etan** pilota relanpago txapelketa. **20:00etan** dantzaldie JOXE ANGELekin afaltzeko gosia iteko. **21:00etan** Herri-Arte elkartean baztan zopak JOXE ANGELek alaituta. Ondotik, goizalderarte dantzaldia JOXE ANGELekin herriko plazan. Goizaldean, gose edo egarri denarentzat, asetzeko modue panaderien.

**Ortzeguna 8**
**Haurren Egune**

**10:00etan** dianak herriko karrikatik barna. **17:00etan** txokolatada eta jokoak herriko eta kanpotik etorritako haurrentzat. **18:00etan** desafioak herritarren artean: • Bizikletaz: Herrie-Zuaztoi-Arbilto-Herrie. • Laisterka: Herrie-Apaio-Herrie. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldie FRANTZISKOrekin.



Argazkia: ONDIKOL

**Paloma San Basilio kantari famatuak etxea dauka Azpilkuetan eta Europako hauteskundeetan mahaian egotea suertatu zitzaion. Zikiro jatean ere ikusiko dugu?**

**Ortzileria 9**
**Zikiro Egune**

**9:00etan** gosarie zikiro prestatzaileentzat. **14:30etan** Zikiro Jatea herriko frontoian JOXE ANGELek alaitua. **17:30etan** kantaldie JAIONErekin, herriko frontoian. **21:00etan** afarie herriko frontoian. Afal ondoren dantzaldia JOXE ANGELekin goizalderarte.

**Launbeta 10**
**Azken Egune**

**10:00etan** dianak herriko karriketan barna. **16:00etan** pilota txapelketako final handia! **16:30etan** mus relanpago txapelketa herriko elkartean. **18:00etan** futbol partide herritarren artian, lehenagoko denborak gogoratuz. Ondotik, lehiaketen sari banaketa. **20:00etatik 21:30etara** dantzaldia EZEIN taldearekin. **0:30etatik 4:30etara** gaupasa EZEIN taldearekin. Ondotik Gaixoa ni eta besten bukaera. Aski ez duenarentzat Uxoan maten dute gosaltzera.

### *Udal igerilekuen egoerari buruz gurasoen arrenkura*

Baztango udal igerilekuen egoeraren inguruan arrenkura agertu zuen guraso talde batek ekainaren 14an, irekitzeko hamar egun falta zirela. Gurasoen arabera, *«belarra ez dago egoera onean, eraikinaren barrutia harriz betea dago eta ez dago itzalik»*. Horretaz gain, haur ttikiendako plisti-plasta igerilekurik ez dago, beraz *«non sartzen ditugu lasai eta arriskurik gabe egon daitezen?»* galdegiten dute. Igerilekuen artean hesi bat jartzearen beharra azpimarratzen dute gurasoek eta beraien kezka azaldu dute babesik gabe dauden eskuadrak direla eta, bereziki jakuzian. Kezkagarria iruditzen zaie, modu berean, haurrak eraikinean dauden bitartean eraikuntza lanak gauzatuko direla. Eskari nagusiak hauek izanik, bertze zenbait gabezia ere gogoratu dituzte: ez dago ostaturik, neurriz kanpoko salneurriak, aparkatzeko toki eskasa eta ezinduei arreta guti.





## BAZTAN



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Aitzinako autoak ikusteko modua izan zuten ekainaren 11n Zigan. Amilcar Internacional Klubak antolatuta, Donibane Lohitzunetik abiatu eta Euskal Herria osoan ibiltzekoak ziren auto zahar eta ikusgarriak.**



UTZITAKO ARGAZKIA

**Hiru ahizpa, arizkundarrak, gazteenaren urtebetetzea ospatzen, Etxebertzeko bordan ekainaren 7an. Anjeles, Ines eta Maria Dolores Etxeberria Etxenike dira, 92, 90 eta 87 urtekoak. Aunitz urtez!**

# Irakurketa Saria eskuratu du Lekarozko Institutuak

### Musikaz lagunduriko irakurketa publikoa izan da lana

**ttipi-ttapa**

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza nagusiak babestutako Irakurketa sarien deialdiaren Bigarren Hezkuntzako modalitatean Lekaroz BHIk ohorezko aipamena lortu du. Saria liburu lote bat izanen da. Lehiaketan Nafarroako 23 ikastetxek parte hartu dute.

Aurkeztutako lana DBHko 4. mailako zein Batxilergoko 1. mailako ikasleekin egindako musikaz lagunduriko irakurketa publikoa izan da, Institutuan egindako bat (testu aukeratuak, musika jotzen ikasleak), bertzea Arizkunenea Kultur etxean egindakoa, idazle baten irakurketa piano-jole baten laguntzaz.

Sari banaketa, ekainaren 16an izan zen Hezkuntza Departamentuaren klaustroaren gaineko galerian eta bertan bi erakusketa jarri ziren: egindako proiektuak eta interes didaktikoko materiala.

### *Kultur taldeendako dirulaguntzak*

Baztango Udalak kultur talde ezberdinei 2004 urteari dagozkien dirulaguntzak banatu ditu: Aranabia antzerki taldea, 600 €; Elizondoko Banda, 1.800 €; Baztandarren Biltzarra, 2.100 €; Baztango Dantzariak, 1.800 €; Iruritako Dantzariak, 600 €; Elkartasuna aldizkaria, 180 €; Ertzuingo Elkartea, 900 €; 12 Ordu Eskuaraz, 1.800 €; Pasioaren Anaitasuna, 360 €; Iruritako Guraso Elkartea, 600 €; Santiago Patroi Guraso Elkartea, 1.500 €; Jo ala jo elkartea, 1.200 €; Xubiltx elkartea, 800€; Santiago Bidearen Lagunak, 800 €; Elizondoko Abesbatza, 300 €; Ikastolako Gurasoen Elkartea, 175 €; Elizondoko akordeolariak, 300 €; Baztango Herri Unibertsitatea, 1.000 €; Arraiozko Lau Herria elkartea, 900 € eta Oronozko Guraso elkartea, 900 €.

MENDI
OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

asnap y me
• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA
• LANGILE AUTONOMOAK
- Garraioak
- Elektrizitatea
- Eraikuntza
- Igeltseroak...
• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
• ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguru Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan aseroramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitorpenak
DONEZTEBE
ELIZONDO
IRUÑA

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

SENPERE

# Hazitik lilia landare biologikoen negutegia sortu du Ibarrunen Mirentxu Doyhenard gazteak



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

**Mirentxu Doyhenard, Hazitik lilia negutegi biologikoaren jabea.**

## Senpere-Sarako Clefe elkarteak languntza eman dio enpresa sortzeko

**Franck DOLOSOR**

Eskualde guzietan bezala, Senperen ere emazteek gizonek baino zailtasun haundiagoak dituzte lana atxemateko edo beren lantegia sortzeko. Egoera aldatzeko xedearekin, 1997an, Clefe deitzen diren aurrezki lan taldeak sortu zituen Hemen elkarteak. Talde hauetako partaideek dirua aurrezten dute urte batez eta gero interes biziki apaleko prestamuak proposatzen dizkiete Iparraldeko emazte enpresalari gazteeri. 7 urtez, 100 000 euroko prestamuak egin dituzte Clefe elkarteek eta berrogoi lanpostu sortu edo indartu dira emazteentzat Ipar Euskal Herri osoan. Gaur, gisa huntako 17 aurrezki elkarte daude Iparraldean eta laster bertze bi berri sortuko dira Donapaleun eta Kanbon.

Berriki, Senpere-Saraldeko Clefe-k laguntza eman dio Mirentxu Doyhenard, 23 urteko arbonarrari landare eta baratzeki biologikoen negutegi bat zabaltzeko Ibarrunen, Ahetzeko bidean. Mirentxuk ekoizten dituen landareek orma edo bero haundiak untsa jasaten dituzte onkailu kimikorik gabe haziak direlakotz. Saran bizi eta Senperen lan egiten duen arbonar gazte hau BLE elkarteko kidea da. Hegoaldeko eko-nekazaritzako jendeekin ere eskuz esku lanean ari da. Hastapenean, jendea kuriositatez gaten omen zen Mirentxuren negutegirat bainan orain landare eta lore biologikoak gero eta ezagutuagoak dira.

Mirentxu Doyhenard lanean hasi berria da bainan ideia ainitz badu. Bere xedea litake desagertu diren Euskal Herriko landare motak berriz atxematea partikularreri saltzeko gero. Lan hori janeko hasi dute hego Euskal Herrian. Mirentxu-ren hazi eta lilieri esker, herria urte osoan lorez betea izanen dugu hemendik goiti...



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Ekainaren 20an, Gantxiki pilotalekuan ospatu zen herriko kermeza alaitu zuten San Josep eskolako ikasleek.**

### *Amotzeko bestak*

Uztailaren 9tik goiti, Amotzeko bestak ospatuko dira.

### *Saiberri*

Sarako Saiberri taldeak kantaldia eskainiko du elizan uztailaren 7an gaueko 9.30tan.

### *Kaskoz kasko*

Uztailaren 11an igandearekin, Senperen kaskoz kasko ibilaldia eginen da.






AZKAIN

# Hizkuntza guttituen egoera administrazioetan aztertu zen

## Ekainaren 19an Bil Toki gelan egin mahainguruan


ARGAZKIA: XAMO
**Ehun jende baino gehiago bildu zen Bil Tokiko mahainguruan.**

**Angela eta Xamo**

Ehun bat baino jende gehiago bildu dira gan den ekainaren 19an, Bil toki gelan, Herriko Etxe Euskaldunen Egunaren goizeko mahain inguruan. Hizlariak eskualde desberdinetatik etorri dira, Ipar Kataloniatik, Bretainiatik, Alsaziatik, baita ere Arango Aranetik, "Hizkuntza guttituen erabilera tokiko administrazioetan" gaiari beren lekukotasuna ekartzerat.

Elkartze honi esker, hizlari bakotxak kondatu digu haren hizkuntzaren egoera administrazioetan eta jendeen harremanetan eguneroko bizian. Lekukotasun horien arabera, konturatu gira hizkuntza guttituen egoera desberdina dela eskualde guzietan. Leku batzuetan, Ipar Euskal Herrian bezala, hizkuntza Herriko Etxeetan sartzen ari da pixkanaka, Bai euskarari kainpainari esker. Bertzetan, Ipar Katalonian bezala, Herriko izenak ari dira bakarrik bi hizkuntzetan idazten herrian sartzeko tauleetan. Eskoletan ere diferentzia batzu atsematen dira. Alsazian adibidez bi hizkuntzetako klaseak ari dira bakarrik idekitzen. Ez dituzte ezagutzen Euskal Herrian edo Bretainian idekiak diren ikastolak.

Holako mahain inguruetatik, azalpen batzu sortzen ahal dira, bakotxaren esperentzia elgarretaratuz. Bainan Frantziar estatuak ez baldin badu nahi ofizialtasuna eman euskara, bretoin, katalan eta holako hizkuntza guzieri, hizkuntza guttituen salbamenaren bidea luze eta zaila izanen da.

### «Jean Sauvé» txapelketako kopa

Uztailaren 8 tik 10a arte, lehen aldikotz, nazio arteko pilotaren txapelketa izanen da Kiroletako ezker paretan. Ostegunean, buruz buruko erdi finalarekin hasiko da espanol selektioa lekuko talde baten kontra. Frontenis-eko erdi finalarekin segituko da Mexikoko hautaketarekin Miarritzeko talde baten kontra. Bigarren buruz buruko erdi finalarekin bukatuko da lehen eguna Mexikoko selektzioa frantses selektioaren kontra .

Ostiralean, joko garbiren bi erdi finalak izanen dira, lehenik frantses selektioa Azkaineren kontra, gero frantses selektioa espainol selektioaren kontra. Bien artean joko garbiren erdi finala izango da, frantses selektioarekin espanol selektioaren kontra.

Larunbatean, joko garbi, frontenis eta buruz buruko finalak izanen dira.

Gauero afari alaituak proposatuak izanen dira saski baloiko salan.

### Azkaindarrak taldearen txapelketa

Urtero bezala, pilota elkarteak bere udako txapelketa antolatzen du astelehen gauero.

Zortzi talde, gehienak azkaindarrak, parte hartuko dute lehiaketa famatu honetan. Txapelketaren finala irailaren 5ean izango da marmitako eta elkarteen egunean.



Maderas GOMEN
- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

GOYA
arropak - maindireak
Mantak - nordikoak
toallak - kortinak
Alfonbrak
Altzate 5 • ✆ 948630080 BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE ANAÏS
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

SARA

# Errebotearen bezpiztea Saran

## Hainbat ekitaldi antolatuak dira uztail eta abuzturako

**Saski eta Joana**

Lehen, "errebotearen meka" deitua zen Sarak, bere elkartean txapeldun haundiak izan zituen lehen mundu gerla aintzin bainan geroztik ere, XX.mendean zehar azken hori biziki aberatsa izan baita pilota joko zaharraren inguruan...Larrondo anaietatik Paxolara, Pixtiatik Eusebiora, Aguirre eta Fagoaga anaietatik Jean Lemoine ospetsura, Charles Irazoki, Jean-Michel Jauregui edo Mattin Jorajuriatik, Calvet-Harisgain-Anorga-Arizcorreta-Oronoz boskotera.

Igande goizeko ospakizuna beraz, hogoi bat urtez baizik ez da geldītu gaur berpiztu aintzin. Txapelketetan engaiatuak diren pilotari batzuk idei bat izan dute, talde baten sortzea: herriari berriz iraganeko hatzak berpizteko asmoz bai eta gazteek saskien erabilera segi dezaten Sarako Izarra taldean... Hala nola, Jean-Marie Lapeyre, Lionel Leparoux, François Pouyet, Andoni Alli, Pierre Arotzarena, Nicolas Jorajuria eta Jean-Jacques Eliceyriek desafio hori finkatu dute.

Berpizte horrek nahikeria sortu du gazteen baitan eta Inaki Petin, Elies Elhorga eta Eric Etchegaray minimoek xistera hartu dute heldu den urtean "cadets" mailan txapelketan parte hartzeko asmoarekin.

Hainbat ekitaldi antolatuak dira, uztailean eta agorrilean, animazio partidak, irailean Gipuzkoako nazioarteko zoingehiagoka, ahantzi gabe partida bat herriko besten kari. Beraz erreboteak eta sakeak oraindik entzunen eta ikusten ahalko dituzue Sarako frontoi berrian.



ARGAZKIA: J.P. LEMOINEK UTZIA

**Ezkerretik eskuinera : Jean Lemoine, André Agirre, Pierre Larronde, Kaiku, Pixtia, Etcheverry-Ainciart, Arce, Errekalde eta beherean Eusebio Jauregui, Petricorena. 1963ko urria.**

### *Pilota*

Uztailaren 13an, saran iraganen dira Euskal herriko txapelketako finalak. Hona hemen egitaraua: 10:30etan Errebotea cadet mailan, 16:00etan joko garbi poussin benjamin eta junior mailak eta 20etan esku huska junior eta bigarren mailan.

### *Hauteskundeak*

Ekainaren 13ko Europako hauteskundeetan, guttiz bainan eskuina nagusitu da saran: Lamassourre hautagaiak 112 botz eskuratu ditu. Gero herritarren zerrenda aurkitzen dugu hurbiletik 109 botzekin. UDFak 85 boz bildu ditu, Sozialistek 69, berdeek 44 boz ukan dituzte, CPNTak 32 eta eskuin muturrak, FN, 25 boz. Aipatu behar da bozkatzeko ahalmena zuten gutti gora behera herenak baizik ez direla hautesuntzietara hurbildu.

### *Abisua*

Urtxola ostatu jatetxea etxia izanen da ekainaren 30tik uztailaren 9 arte.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

# EZKONTZAK

**Mª Eugenia Jaurena Gaztanbide** eta **Santi Goienetxe Iturburua**, Zugarramurdi eta Amaiurkoak, ekainaren 12an.
**Aitor Agesta Oskoz** eta **Andrea Mendiburu Muxika**, Arantza eta Zubietakoa, maiatzaren 15ean.
**Guillaume Guichard** eta **Agathe Marie Fourneau**, Azkaingoak, apirilaren 24an.
**Renaud Jan Robert Templier** eta **Estelle Mathilde Magnien**, Azkaingoak, maiatzaren 22an.
**Jean-Philippe Gérard Bertin** eta **Maxence Marguerite Marie Geneviève Le Nail**, Azkaingoak, maiatzaren 29an.
**Jean-Claude Eric Imbert** eta **Maria Gema Elorriaga Etxebarri**, Azkaingoak, ekainaren 12an.
**Vincent Ibarburu** eta **Stéphanie Segure**, Azkaingoak, ekainaren 12an.
**Fabrice Foinels** eta **Nathalie Annick Urtizberea**, Azkaingoak, ekainaren 19an.
**Jose Mª Zamora Arregi** eta **Maria Gloria Zelaieta Martikorena**, Oronoz-mugairikoa eta Berakoa, ekainaren 5ean.
**Aitor Merino Razkin** eta **Maria Izaskun Iparragirre Baleztena**, Leitzakoak, ekainaren 5ean.
**Emilio Garralda Urdanpilleta** eta **Maria Pilar Zubitur Soroa**, Atallo eta Leitzakoa, maiatzaren 8an.
**Miguel Maria Sagastibeltza Zabaleta** eta **Miren Josune Uranga Agirre**, Leitzakoak, ekainaren 19an.
**Ignacio Martinez Lizaso** eta **Ana Iturralde Iturriria**, Doneztebe eta Elizondokoa, ekainaren 5ean.
**Jorge Eduardo Castellano Prat** eta **Maria Angeles Ferrer Pelicero**, Zaragozakoak Iruritan, ekainaren 12an.
**Oscar Sueskun Hernandez** eta **Eva Bustinze Bergera**, Tolosa eta Iruñekoa Almandozen, ekainaren 4an.
**Renato Collado Solana** eta **Ana Isabel Etxaleku Castaño**, Paris eta Iruñekoa, Almandozen, ekainaren 12an.
**Daniel Ezkurra Oteiza** eta **Josune Navarro Alunda**, Oronoz-Mugairi eta Arraiozkoa, ekainaren 19an.
**Jose Angel Ziganda Etxenike** eta **Jasone Etxart Altuna**, Iruñekoak Iruritan, ekainaren 19an.
**Prudencio Bidegain Danboriena** eta **Maria Asuncion Biela Urtasun**, Iruñekoak Elizondon, ekainaren 18an.
**Fernando Clavijo Blazquez** eta **Cristina Juesas Escudero**, Logroño eta madrilgoa Elizondon, ekainaren 19an.
**Oscar Jose Bengoetxea Mena** eta **Mari Carmen Lasheras Adot**, Iruñekoak Arizkunen, ekainaren 19an.
**Bajtiar Mamadzjanov** eta **Olha Minkevych**, Osh (Kirgistan) eta Ivano-Frankove (Ukraina), ekainaren 9an, Beran.
**Francisco Javier Benitez** eta **Maria del Campo Garcia Retegi**, Misiones-Posada (Argentina) eta Berakoa, ekainaren 12an.
**Jesus Vazquez Arias** eta **Maria Luz Penalva Hoscos**, A Coruña eta Donostiakoa, Beran, ekainaren 19an.

# SORTZEAK

**Maddi Igoa Apezetxea**, Lesakakoa, ekainaren 10ean.
**Oier Almandoz Garmendia**, Zugarramurdikoa, ekainaren 18an.
**June Ariztegi Altxu**, Iturengoa, maiatzaren 25ean.
**Mathias René Claude Barberis**, Azkaingoa, maiatzaren 18an.
**Txomin Cyprien Darizkuren**, Azkaingoa, ekainaren 2an.
**Tristan Olivier Dolhagarai**, Azkaingoa, ekainaren 1ean.
**Xabi Etxarte**, Azkaingoa, apirilaren 28an.
**Jordan Hegoas**, Azkaingoa, maiatzaren 6an.
**Angélina Carla-Paula Aliénor Loizeau**, Azkaingoa, maiatzaren 27an.
**Lilou Maore Rodriguez**, Azkaingoa, apirilaren 9an.
**Benjamin Carlos Stan Stan**, Narbartekoa, ekainaren 7an.
**Aimar Vazquez Azkarate**, Elizondokoa, ekainaren 7an.
**Mikel Arraztoa Bikondo**, Iruritakoa, ekainaren 16an.
**Imanol Zoco Argain**, Iruritakoa, ekainaren 16an.
**Unai Altzugarai Aranbillet**, Berakoa, ekainaren 4an.
**Laia Lekuona San Juan**, Lesakakoa, ekainaren 23an.

# HERIOTZAK

**Juana Emiliana Urrutia Galtzagorri**, Elbetekoa, ekainaren 12an, 93 urte.
**Leoncio Irazoki Iriarte**, Berakoa, ekainaren 14an, 49 urte.
**Angel Martin Gonzalez**, Elizondon, ekainaren 15ean, 70 urte.
**Julian Maia Etxeberria**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 17an, 85 urte.
**Ines Bergara Fagoaga**, Arantzakoa, ekainaren 18an, 89 urte.
**Felicia Apeztegia Latasa**, Oitzkoa, ekainaren 18an, 88 urte.
**Ramon Andueza Errazkin**, Lesakakoa, ekainaren 19an, 92 urte.
**Hector Reguera Trantxe**, Doneztebekoa, ekainaren 21ean, 24 urte.
**Matias Larrainzar Alkasena**, Elbetekoa, ekainaren 22an, 57 urte.
**Eugenio Etxenike Arratibel**, Arraiozkoa, ekainaren 22an, 47 urte.
**Juan Apeztegia Urrutia**, Sunbillakoa, ekainaren 23an, 96 urte.
**Eusebio Berasain Sagastibeltza**, Leitzakoa, ekainaren 23an, 80 urte.
**William Moizan**, Azkaingoa, maiatzaren 15ean.
**Maryse Anne Normand (Lyssandre)**, Azkaingoa, maiatzaren 21ean.
**Cédric Baptiste Louis Dupouy**, Azkaingoa, maiatzaren 3an.

## LEONCIO IRAZOKI IRIARTE

**2004ko ekainaren 14an hil zen Beran, 49 urte zituela**

*«Eskuen artean zenuen
beti zenbait lan,
arte-lan asmatu bezain pronto,
bertziri eman,
ahoan irrifarrea eta koa
zenituen elkarren ondoan;
harat-honat laguntzen
zenbiltzan joan-etorrian,
familia eta lagunak ginen
beti zuren lehentasunean,
eta orain, LEO, betiko izango
zara gure barrenean».*

**Esker mila une latz hauetan hurbildu zareten guziei, familiaren partez.**



**Eskela eta eskertzak**
**948 635458**

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da.
**Rural Kutxa**ko
3008 0080 53 0703304626
kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa**ra igorri faxez (948 635457) edo postaz argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.
(Andutzeta 12, 31760 Etxalar)



**Esther eta Maite ARRETXEA** *Narbarteko palistak*

# «Frontenisa edo paleta-goma, frontoian edo trinketean, dena gustatzen zaigu»

- **Nafarroako emakumezkoen paleta goma txapelketan txapeldun eta azpitxapeldun suertatu ziren maiatzaren 3an Narbarteko Esther eta Maite ahizpak.**
- **Hamazazpi eta hamabortz urte baldin badituzte ere, sub-21 kategorian hiru neska bakarrik daudenez, senior mailan aritu dira.**
- **Mendillorrio trinkete txapelketan ere txapeldun eta azpitxapeldun izan ziren. Euskal Herriko paleta goma txapelketan, berriz, Belate Ligako azpitxapeldun izan ziren biak bikote eginez.**

**Aitor AROTZENA**

Hamabi-hamahiru urte zituztela, Narbarteko eskolan ikasten ari zirelarik, guraso elkartetik antolatutako frontenis txapelketan parte hartu zuten lehen aldiz Esther eta Maite Arretxea ahizpek. Eta ongi aritzen zirela ikusi zen. Gero, bertze neskek pilota alde batera utzi bazuten ere, bi ahizpei afizioa piztu eta jokatzen segitu nahi zutela erabaki zuten: *«Nafarroako Kirol Jolasetan apuntatzen saiatu ginen, bainan nesken modalitaterik ez baitzen, nahi bagenuen palaz larruzko pilotarekin jolasteko mutikoen aurka apuntatzeko erran ziguten»*. Txaruta pilota elkartean ere ez zegoen inor nesketaz arduratzeko baina Auritzberrin nesken arteko txapelketa antolatzen zutela jakin zuten. Han jokatu zuten lehendabiziko txapelketa herritik kanpo, baita irabazi ere, bikote eginez. Bertizaranan antolatutako txapelketa irabazi zuten hurrena eta pixkanaka palmares polita osatzen joan dira. Euskal Herriko emakumezkoen paleta goma txapelketan, Belateko ligan azpitxapeldun izan ziren.

**«Emakumeen pilotak ez du laguntza haundirik, baina azken aldian hasi da indarra hartzen eta poliki-poliki gero eta gehiago indartuko da»**

### Mendillorriko trinketean proba

Herrian elkarrekin entrenatzeko bertze neskarik ez izatea eta nesken pilotan inongo laguntzarik ez izatea ez da nahikoa izan beraiendako kirol hau uzteko. Horregatik, Nafarroako Teknifikazio Zentrotik trinkete modalitatea bultzatu nahi zutela eta probatzera joateko deitu zietenean ez zuten zalantzarik izan. Txapelketa antolatu zen Mendillorriko trinketean eta lehen aldiz arerio izatea suertatu zitzaien. Gibelean jokatzen duen Esther txapeldun izan zen eta aitzinean aritzen den Maite azpitxapeldun. Estherek aipatu digunez, *«bikoteak zozketa bidez osatzen dira. Elkarrekin suertatzen baldin bagara ongi, elkar ongi ezagutzen dugulako, baina kontra tokatzen bada ere gustora aritzen gara, bertzerik gabe»*.

Gero, Nafarroako paleta goma txapelketan gazte mailan izena eman zutenak ez ziren nahikoak bere mailan txapelketa bat antolatzeko eta azkenean erabaki zuten gazteak helduekin nahastea senior mailan. Bi narbartearrak ederki aritu ziren, Esther hainbat aldiz txapeldun izan den Susana Muneta aitzinean zuela eta Maite Mirentxu Okariz bizkarzainarekin. Hauek, finalerdian irabazi egin zieten Nerea eta Maite Ruiz bikoteari, azken hau ere hainbat aldiz txapeldun izandakoa. Azkenean biak finalean sartu ziren. Partida orekatua jokatu eta tantu aski politak eskaini ondotik, Susana Muneta eta Esther Iriarte nagusitu ziren. Zorionak!

ATLETISMOA

# Antonio Etxeberria garaile Doneztebeko XXVI. Herri Krosean

## Denera 86 korrikalari izan ziren



ARGAZKIA: LEGARRA

**Senior mailako podiumean, Antonio Etxeberria iruñearra, Rafa Maritxalar lesakarra eta Fernando Etxegarai beratarra.**

A.A.

